

xvi. **Azoka Berezia**

zer ote?
Zizurkilgo auzateko gida



urria

Zizurkilgo Udala
Zizurkilgo euskara magalean
2013 | 115. zenbakia | udazkena
www.zizurkil.com
Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

13

Baserriko produktuak eta artisauak



Autobusa doan Bulandegi Bideko errotondatik edo Zubiaurrettxotik Zizurkil Goiko Plazara egun guztian zehar.

info + www.zizurkil.com



- 11'00 Azokaren irekiera.
- 12'00 Haurrentzat jokoak Udaletxe aurrealdean.
- 13'00 "Baserriko Argia Saria" Zizurkilgo baserriarren postu onenari eta Kantu-jira.
- 14'30 Bazkaria Zimiterioan. Txartelak salgai Iriarte, Egari eta Atxulondo tabernetan.
- 17'00 Poniak eta aurpegi margoketa.
- 18'30 **XUXURLARIAK** Kale Antzerkia, Ados Teatroaren eskutik.

urria

urria

FANDANGO ETA ARIN-ARIN IKASTAROA HELDUENTZAT

urria



8

Azaroaren 8an hasita, ekaina bitartera, ostiraletan 19:00etatik 20:00etara Atxulondo Kultur Etxean. **Prezioa 90€.** Izen emateak Udal Bulegoetan.

EUSKARA

urria

EUSKARA IKASTAROAK

EUSKARA IKASTEKO: aurten ere Zizurkilgo udalak **herrian bertan** euskara ikasi nahi dutenei lagunduko die.

AUTOIKASKUNTZARAKO: Euskara ikasi zure erritmoan, ahal duzunean, loturarik gabe eta etxetik bertatik! Tutore baten gidaritzapean eta mintzapraktikak eginez. **Ezin da errazago jarri!**

Baldintzak: Zizurkilen erroldatua egotea eta %85eko asistentzia ziurtatzea. Matrikularen %75a (gehienez ere, pertsonako 400 €) jasotzeko aukera izango da (Autoikaskuntzaren kasuan, asistentziaren %85a mintzapraktiken araberakoa izango da).

MINTZALAGUNA

Euskaraz hobeto moldatzeko behar dituzunak: astean behin ordubete, ingurune lasai eta giro atsegina, jende berria ezagutzeko gogoia, hiru pertsonako taldeak (bi euskaldun berri eta zahar bat). Guk lagunduko dizugu! Urrian zehar izena eman dezakezu.

EUSKARA

urria

TEODORO HERNANDORENA XII. IPUIN LEHIAKETA



Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larrail eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute, bost maila ezberdinetan: A Maila: 6-8 urte; B Maila: 9-11 urte; C Maila: 12-13 urte; D Maila: 14-16 urte eta E Maila: 17 urtetik gora. Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira, **azaroaren 25eko eguerdiko 14:00ak baino lehen** Zizurkilgo Udal Bulegoetan. Oinarriak ere eskuragarri daude bertan.

KZ GUNEA

urria

tutoretzak

Urriko tutoretza egunak **2, 16** eta **30** izango dira, 16:00etatik 17:45era.

BESTELAKOAK

12

GARAGARDO GAUA
Zizurkil Goian